

## **VERTER RECYCLING-EN ADIERAZPENA, ZABORTEGIA ERORI ONDOREN ABIARAZITAKO LANEN EGOERARI BURUZ**

*Zaldibar, 2020ko otsailaren 19a.*- Ondoko hau adierazi nahi dugu zabortegiaren luiziak eragindako egoeraren eta zabortegian egiten ari diren lanen gainean:

1. Zabortegia erori zenetik, gure ardua nagusia izan da Joaquín eta Alberto erreskatatzea. Hasiara-hasieratik, saiatu gara haien familiengandik hurbil egoten, eskura duguna ematen eta egoera gogor honetan babesa azaltzen, eta, noski, aginpide eskudun guztiekin erreskatean kolaboratzen.
2. Benetan atsekabetuta gaude istripua inguruan eragiten ari den eragozpenengatik eta kezkenegatik. Eskura izan dugun guztiarekin lagundu dugu Batzorde Teknikoaren lana, segurtasuna bermatzeko eta Zaldibarreko, Eibarreko eta Ermuko herritarrei lasaitasuna emateko. Espero dugu egoera lehenbailehen normalizatzea, teknikariak eta emergentzia-taldeak egiten ari diren lan intentsuen bitartez.
3. Istripua gertatu osteko lehen uneetan, inguruan eragina duten emergentziazko egoeretarako jarduera-protokolei jarraikiz, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren Larrialdiei Aurre Egiteko Zuzendaritzak hartu zuen ardua egoera kontrolatzeko eta luizari lotutako premiazko lanak gauzatzeko. Hala ere, enpresa uneoro laguntzeko prest azaldu da, eta lanok gauzatzeko beharrezko guztian kolaboratu du, informazioa emanez eta zeregin guztietan pertsonekin eta materialarekin lagunduz, besteak beste.
4. Kolaboratzeko asmoa azaldu genuen, halaber, Eusko Jaurlaritzarekin otsailaren 12an, asteazkenean, egindako bileran, non ekintza zehatzak gauzatzea hitzartu baitzen. Ildo horretan, enpresak zenbait aditu kontratatu zituen –denek ere ibilbide profesional zabala eta egiaztatua dute antzeko egoeretan– Eusko Jaurlaritzak osatutako Emergentzia Kudeatzeko Batzorde Teknikoaren lanetan laguntzeko, hain zuzen ere, erreskate-lan guztiak pilotatzen eta eremua egonkortzen.
5. Enpresak du interes handiena istripuaren kausak ezagutzeko. Ikerketan emaitza konkretuak eta behin betikoak lortu arte, enpresak ezin du egin balizko kausei buruzko ez adierazpenik, ez baloraziorik, eta ez ditu egingo. Denbora beharko da istripuaren kausak zehazteko. Horrenbestez, gertakarien gaineko datu zehatzak eduki arte, beharrezkoa iruditzen zaigu jarrera zuhurra azaltzea. Funsgabeko suposizio eta zurrumurru guztiek ez dute une honetan behar den gutxieneko zehaztasun teknikoa.
6. Zabortegiaren jarduera aginpide eskudunek kontrolatu dute uneoro helburu horretarako dagoen ikuskaritza-planaren bitartez eta bere kontrol-mekanismoen bitartez. Halaber, zabortegiak beti izan ditu dagozkion baimen guztiak Euskadiko industriaren hondakin ez-arriskutsuen bilketari soluzioa emateko eginkizuna betetzeko. Baimena eskuratzeko aurkeztu dituen proiektuak ingurumeneko organo eskudunak aztertu eta baliozkotu ditu uneoro,

horretarako emandako ondoz ondoko baimenen bidez. Inolaz ere ezin zitekeen susmatu zabortegia eroriko zenik.

7. Zabortegira iristen ziren hondakin guztiak kontrolatzen ziren, isurtzeko egokiak ziren egiaztatzeko. Jatorrian ezaugarritu ondoren, kode bat esleitzen zitzairen. Baskulan ziurtatzen zen betekizunak betetzen zituztela eta zehazten zen kantitatea. Erregistroa erregulariki bidaltzen zitzaion Jaurlaritzari, zegokigun ingurumen-baimen integratuaren baldintzei jarraikiz, Ingurunet plataforma elektronikoan ezarritako sistemaren arabera. Amiantoari dagokionez, Verter-en baimenen arabera zabortegian isurtzeko hondakin baimendua izateaz gain, prozedura bat zegoen, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak onartutako segurtasun-neurriak biltzen zituen. Amiantoa fibrozementuan inertizatuta etorri eta plastikoan kapsulatuta isurtzen zen, baliabide mekanikoen bidez deskargatu ostean, leku zehatz batzuetan, kokapenaren berri izateko eta kontrola egin ahal izateko.

8. Zabortegia ez zegoen beteta; hortaz, hondakinak jasotzeko gure jarduera gauzaten jarraitzen genuen, zorrotasunez betez horiek hartzeko kontrol-prozedurak eta isurtzeko baldintzak. Zabor kantitateei eta baimendutako bolumenari dagokienez, jarduera erregulatzen duen baimena bete dugu.

Verter Recycling *online* oharrak: [www.verter.eus](http://www.verter.eus)

*Informazioa: Arturo Zubiaga*

*Telf: 94 415 86 42*